

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abenduaren 5a

142. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du zilegitasunez eraturako Errepublikaren eta legez eraturako Espainiako, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen aurka Franco jeneralak 1936ko uztailen gidaturako altxamendu militar faxista. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bidezkoak diren prozedurak ezar ditzan ikastetxe publikoetan hizkuntza eredu desberdinak elkarrekin bizi daitezen, eta hezkuntza-eskaintza publiko berrantola dezan. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da desegin ditzan Nafarroaren etorkizunerako funtsezkoak diren elementuak –hala nola Nafarroako ikerketa teknologikoa, medikoa eta garapeneko– kudeaketa pribatura bideratze aldera eginiko urratsak. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak balorazio oso ona egiten du Iturrondo Prestakuntza Zentroak alor guztietan eginiko lana dela-eta. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultzatzea eta har ditzan, jabeen erkidegoek azken kontsumitzaileen katalogazioa edukitzeko. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta gizonen eta emakumeen berdintasuna eta genero indarkeriarik eza sendotzeko proposamen zehatz eta errealak prestatu eta babesteko. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak onesten du Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunekeko manifestua. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere nahia dela urtero handitu daitezela berdintasun politikak gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Antsoaingo abortu-klinikako atarian hertsapen eta erasoen xede izan diren emakumeei babesa eta elkartasuna adierazten zaie. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa agertzen du Gamesak iragarritako kaleratze berriak direla eta. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta aitortza adierazten die D ereduko irakasleei. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa agertzen dio hezkuntza komunitateari, edozein dela ere irakaskuntzarako erabiltzen den hizkuntza eredia. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Nafarroako udalek aukera berdintasunerako agenteak kontratatu ahal izateko aurrekontu-esleipena ordaintzeari buruzkoa, Maria Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (16. or.).
- Galdera, 2014an zehar Biziaren Autobusa finantzatzeko formulari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Etxegabetzei Arreta Emateko Batzordeari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa, 2014an zehar Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat sustatze aldera, Amaya Zarranz Errea andreak egina (18. or.).
- Galdera, Haur Hezkuntzako ikastetxeetako titularrak diren toki entitateentzako diru-laguntzei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (19. or.).
- Galdera, administrazioko langile elebidunen kopuruari eta hizkuntza eskakizuna duten lanpostuei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Baso Biomasaren I. Feria iragartzeko afixetatik euskara kendu izanaren zergatiari buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egina (21. or.).
- Galdera, Nafarroan fundazioen titulartasuneko ikastetxeetako eta ikastetxe erlijiosoetako ikasleen familientzako %25eko desgrabazioak dirubilketan duen eraginari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (22. or.).
- Galdera, entzierroko pilaketaren ondorioz 112 zenbakiko koordinazio-salaren bidez ospitaleetara egin ziren zauritu-garraioei buruzkoa. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea (23. or.).
- Galdera, Esako Lasaitasuna urbanizazioan izandako kalteen konponketari buruzkoa. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea (23. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (24. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2014ko urtarrilaren 3ko eguerdiko hama-**

**biak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du zilegitasunez eratutako Errepublikaren eta legez eratutako Espainiako, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen aurka Franco jeneralak 1936ko uztailean gidatutako altxamendu militar faxista.**

*BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu zilegitasunez eratutako Errepublikaren eta legez eratutako Espainiako, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen aurka Franco jeneralak 1936ko uztailean gidatutako altxamendu militar faxista.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Jakina denez, 2010eko apirilaren 14an, kereila bat aurkeztu zen Argentinako zigor arloko epaitegi batean, Francoren diktadurak 1936ko uztailearen 17tik (kolpe hiritar-militarraren hasiera) 1977ko ekainaren 15era bitartean (lehen hauteskunde demokratikoak egin ziren eguna) Espainiako Estatuan eginiko genozidio delitu eta/edo gizateriaren aurkako krimenengatik.

Biktimen senideek nahiz Argentinako eta Espainiako elkarte sozial eta giza eskubideen arlokoek aurkeztu zuten. Horiekin bat egin dute, edo laster bat egiteko prestatzen ari dira, ehunka auzi-jartzaile eta salatzaille partikular, diktaduraren azken etapako errepresaliatuak eta askotariko elkarteak: kulturalak, sozialak, sindikalak eta abar.

4591/10 zenbakidun kereilak salatzen ditu "Francoren erregimenak eta horren egileek 1936ko uztailearen 17tik 1977ko ekainaren 20ra bitartean eginiko genozidio delituak edo, subsidia-rioki, gizateriaren aurkako krimenak".

Kereila horren izapidetzeak arrakala bat irekitzen du frankismoa babesten jarraitzen duen zigorgabetasun-harresian. Gaur egun, bada auke- ra Argentinako epaitegi horren aurrean aurkeztu eta Espainiako Estatuan ukatzen den justizia eskatzeko. Estatu osoan barrena jasotzen ari diren testigantza dokumentatuak lagungarriak dira zital-keria haren neurriaz jabetzeko. Helburua da gure historia hurbilaren zati ezinbesteko bat berreskuratzea, haren faltsutzea eragozte, eta erantzukizunak eskatzea erregimen hura berrogei urtez mantendu zutenei.

Kereilaren oinarri juridikoa da jurisdikzio edo justizia unibertsalaren printzipioa, zeinaren bidez edozein herritako epaitegiek jardun ahal eta behar baitute nazioartea kaltetu eta iraintzen duten krimenak gertatzen direnean.

Eta hori horrela da Espainiako Estatu-ko Auzitegi Gorenaren nahia delako Amnistiaren Legeak Espainiako jurisdikzioa salbuestea diktadurako krimenak ikertzetik, garrantzizko bi konturi izkin egi- nez: batetik, lege hori Konstituzioa aldarrikatu baino lehen onetsi zela –ondorioz, ulertu behar da ez diola aurka egin Konstituzioak aldarrikatzen duen justiziarako eta gizakien oinarriko eskubide-

en babeserako eskubideari eta, beraz, gizateriaren aurkako krimenen arduradunak epaitzeari—, eta, bestetik, lege hura egin baino lehen Espainiak nazioartean konpromisoa hartua zuela nazioarteko zuzenbidearen printzipio orokorren arabera delitu direnak egin dituztenak pertsegitzeko, baita jokaera hori barneko zuzenbidean aurreikusita egon gabe ere. Preskribitzen ez duten krimenak izateaz gain, nazioko eta nazioarteko legedia eta jurisprudentzia finkatuaren arabera, non edo noiz egin ziren kontuan hartu gabe ikertu eta zigortu beharrekoak dira.

Egin nahi dena ez da bakarrik desagertuak berriro desagerraraztea, baizik eta haien desagerrarazleak ere desagerraraztea. Galarazi nahi da haien krimenak ezagutzea, haien izenak ezagutzea: hiltzaileenak, torturatzailenak, haur-bahitzaileenak. Falaziaz argudiatzen da denak hilda daudela, hildakoek eta beren familiek justiziarik beharko ez balute bezala, eta isilarazten da, nahita gainera, ehunka direla bizirik dauden biktimak eta errepresoreak, eta azken horiek epaituak eta penalki zigortuak izan daitezkeela, eta hala izan beharko luketela.

Atzerriko epaitegien jarduna herriek eskura duten arma indartsua da, herri barruko justizia faltaren aurka borrokatzeko. Besteak beste, zigorgabetasunaren aurkako nazioarteko salaketa bihurtzen da; ziurtatzen du biktimek epaile baten aurrean deklaratu ahal izatea; krimena egin zen lurraldean ukatzen diren ikerketa judizialak abian jartzea; bidea ematen du arduradunak deklaratzera deitzeko eta, krimenetan parte hartu izanaren zantzu sendoak izanez gero, haien aurkako espetxeratze agindua ematea eta, horretarako, nazioarteko atxilotze-aginduak ematea; agerian uzten du ezen, nazioarteko jazarpenaren eta aurkitzen diren tokian atxilotuak izateko arriskuaurrean, zigorgabetasuna duten munduko toki bakarra dela delitua egin zuten bera.

Hori dela eta, funtsezkoa da, partikularren salaketez gain, erakunde publikoek konpromisoa hartzea kereila babeste aldera lan egiteko, eta, horregatik, behean sinatzen duten parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkezten dute, eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Parlamentu honek berriz ere salatzen du 1931n zilegitasunez eraturako Errepublikaren eta legez eraturako Espainiako, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen aurka Francisco Franco Bahamonde jeneralak 1936ko uztailean zuzendutako altxamendu militar faxista.

2. Parlamentu honek salatzen du altxamenduaren ondotik ezarri zen diktadura, zeinean odolez eta suz erreprimitu baitzen disidentziaren eta askatasunaren, justizia sozialaren eta eskubide indibidual nahiz kolektiboaren aldeko borrokaren arrasto oro, berrogei urtez.

3. Parlamentu honek salatzen du nekazari-tzako, industriako eta finantzeko oligarkien parte handi batek eta Eliza Katolikoaren hierarkiak izandako jokabidea; izan ere, lehenbizi kolpea babestu zuten eta, ondoren, ezarritako erregimen faxista.

4. Parlamentu honek babestu egiten ditu frankismoak errepresaliatutako pertsonen eskubideak eta aldarrikapenak, eta Estatuko administrazio publikoei, hau da, erakunde politiko eta judizialei, exijitzen die beharrezkoak diren neurriak har ditzatela 1936ko uztaileko altxamendu militarren, erregimen frankistaren eta estatu-terrorismoaren errepresaliatuei honako eskubideok bermatzeko: erregimen hari buruz daukaten egiarako eskubidea baliatu ahal izatea, haren jarraitzaileek, historia berridazteko egin ohi dituzten ahaleginei, aurka egite aldera; egiazko justiziarako eskubidea, eginiko gizateriaren aurkako krimenen arduradunen egungo zigorgabetasun egoera gainditze aldera; frankismoaren ehun milaka biktimei ordain duin eta bazterketarik gabekoa ematea, eginiko eskubide-urraketengatik; eta, azkenik, gizarte osoaren eskubidea aldaketa soziopolitiko, juridiko eta instituzionalak ezartzeko, berriro halakorik ez gertatzea ziurtatze aldera.

5. Konpromiso-ildo horri jarraikiz, Parlamentu honek adierazten du babestu eta bat egiten duela frankismoan eginiko giza eskubideen urraketen arduradunen aurka genozidioa eta gizateriaren aurkako krimenak egiteagatik Argentinan Errepublikako Buenos Aires hiriko 1. epaitegian aurkeztutako 4591-10 kereilarekin, zeinen ikerketa María Seruini de Cubría epaileak baitarama.

6. Parlamentu honek herritarrak animatzen ditu frankismoaren krimenen aurkako kereila babestera, bai frankismoan zuzenean errepresaliatuak izan zirenak edo hala izan zirenen ahaideak kereila-jartzaile gisa aurkeztuz, bai diktadura salatuz eta haren krimenen eta kriminalen aurkako kereilarekin bat eginez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 19an

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez eta Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bidezkoak diren prozedurak ezar ditzan ikastetxe publikoetan hizkuntza eredu desberdinak elkarrekin bizi daitezen, eta hezkuntza-eskaintza publikoa berrantola dezan.**

### *MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bidezkoak diren prozedurak ezar ditzan ikastetxe publikoetan hizkuntza eredu desberdinak elkarrekin bizi daitezen, eta hezkuntza-eskaintza publikoa berrantola dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Euskarazko irakaskuntzak urte asko behar izan zituen Nafarroako Irakaskuntza Sistema Publikoan ezartzeko. Gurasoen kooperatibak, erakunde pribatuak eta Iruñeko Udala izan ziren arlo horretan zegoen gizarte-eskariei erantzuna eman zietenak.

Euskara Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan sartzeara arautzen duen 159/1988 Foru Dekretuak lau hizkuntza-eredu ezarri zituen:

A eredu: irakaskuntza gaztelaniaz, salbu eta euskara ikasgai.

B eredu: irakaskuntza elebitan (ikasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz).

D eredu: irakaskuntza euskaraz, eta bigarren hizkuntza gisa gaztelania ez beste edozein.

G eredu: irakaskuntza gaztelaniaz, euskara ikasgai gabe.

Dekretu horrek ezarri zuen eremu euskalduneko ikastetxeetan derrigorrezkoa dela euskaraz ikastea –bai ikasgai modura, bai ikasteko hizkuntza modura–; hartara, foru dekretuak xedatzen du eremu horretan soilik baimenduko zirela A, B eta D ereduak. Eremu ez euskalduneko ikastetxeei dagokienez, berriz, soilik baimendu ziren irakaskuntza gaztelaniaz egiten duten ereduak: G eta A ereduak, hain zuzen ere. Eremu mistoko ikastetxeetan eredu guztiak baimenduko ziren (A, B, D eta G), eskariarekin bat.

Harrezkero, Hezkuntza Administrazioak antolatzen du –plangintza eskasarekin– euskarazko irakaskuntzaren eskaintza publikoa. Hasiera batean, zenbait ikastetxek arau horretara egokitu zuten beren hezkuntza-eskaintza, halako moduan non ikastetxe publiko bakoitzak bere hizkuntza-eremuari zegozkion ereduak eskaintzen baitzituen eta, hartara, ikastetxe berean baitzeuden hizkuntza-eredu guztietako ikasleak. Halere, handik gutxira, ereduak ikastetxe eta eraikin ezberdinetan banatuz joan ziren, eta hizkuntza-eskaintza berezituak zituzten ikastetxe berriak sortu baitziren.

Bere hizkuntza-eremuari zegozkion ereduak eskaintzen zituzten ikastetxe askotatik atera ziren gaztelaniazko edo euskarazko ereduak bakarrik eskaintzen zituzten bi ikastetxe: Navarro Villoslada BH1a, Lorenzo Goikoa HLHIPa, Ave María HLHIPa eta Mendillorri HLHIPa, besteak beste.

A, G eta D ereduak eskaintzen zituzten edo eskaintzen jarraitzen duten ikastetxeetan ere eman dira eta ematen dira antolakuntza-neurriak, ekidite aldera eredu ezberdinetako ikasleek espazioak eta denborak partekatzea; esate baterako, sarrerak, irteerak eta atsedendialdiak.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuak oraindik ere mantentzen du ikasleak hizkuntza-ereduen arabera bereizteko joera ikastetxe sortu berrietan.

Alegia, orain dela 30 urte baino gehiago gertatzen ari da fenomeno bat eskola-instituzioei agindutako oinarrizko funtzioen garapenean –ikasleen sozializazioa eta elkarrekin bizitzeko bizikidetasunerako hezkuntza– eragin negatiboa duena.

Errealitatea da ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxe pribatuak elkarrengandik gero eta urrugo daudela hartzen dituzten ikasleei dagokionez, eta beren ingurune fisiko eta sozialetik aldenduago daudela. Egoera hori konpondu beharra dago, oro har.

Zehazki, ikasleak hizkuntza-ereduen arabera ikastetxe ezberdinetan banatzearen kasuan, argi dago eta eztaba daezina da ikasleek eskubidea dutela bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzeko irakaskuntza, baina eskubide hori uztartu daiteke eta uztartu behar da gainontzekoekin elkarrekin bizitzeko eskubidearekin.

Federico Mayor Zaragozaren hitzetan, "Elkarrekin bizitzea da bizipenak partekatzea; elkarrekin bizitzea da, hortaz, topo egitea eta solastatzea, "batera ibiltzea". Eskolan solastatzean, eskola-bizikidetasuna eraikitzen ari gara; gizartean, hirian solastatzean, herritartasuna, bizikidetasun demokratikoa eraikitzen ari gara.

Elkarrekin bizitzen ikastea da hezkuntzaren oinarritzko helburua. Helburua da ahaleginak batzea erantzun onuragarriak emateko; izan ere, ohartzen gara eskolak sailestu ezineko erronkak direla bizikidetasun demokratikorako eta herritartasunerako hezkuntza, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunerako hezkuntza, kulturen arteko hezkuntza eta, finean, bake-kulturarako hezkuntza, baldin eta XXI. mendean eskolak eta gizarteak dituzten arazoei begira alternatiba positibo eta eraikitzaileak bilatu nahi baditu.

Egia da eskolak, hezkuntza erkidegoa den aldetik, ez dituela erantzun guztiak, baina badituela inguruneak behar dituen erantzun asko; kasu honetan, erantzun bat eskaini diezaioke hizkuntza-normalizazioari, gizarte-kohesio handiagoa lortzen laguntzen duen neurrian. Halatan, al bait azkarren zuzendu behar dira irakaskuntza hizkuntza ofizial batean ala bestean jasotzeagatik ikasleen artean hezkuntza nahiz bizikidetasun esperientziak trukitzea eragotzi duten eta eragozten duten politika segregatzaileak.

Eskola publikoak erantzun bat eman behar die eskola-adineko populazioaren hezkuntza-premiei oro har eta, bereziki, bere ingurune hurbilekoari, ikasle guztien prestakuntzari dagokionez, gizartean kide aktibo gisa integratu ahal izan daitezen. Funtsezkoa da, halatan, eskola-erakundeak ingurunera egokitu daitezen eta hartan margil daitezen, ingurune horren osaera sozialaren isla den aldetik, landa nahiz hiri ingurunea izan. Ikastetxe bakoitzak, horrenbestez, tokian tokiko ikasleen berezitasunen arabera egokitu behar du bere hezkuntza arloko esku-hartzea.

Ezin da ahantzi hezkuntza jasotzeko eskubidea norbanakoaren eskubide bat dela, herritarren eskubide bat, eta, hortaz, administrazio publikoek nahitaez bermatu behar dutela eskubide hori, bizikidetasunaren barneko eta bizikidetasunerako hezkuntza jasotzen duena.

Beti ere, espazio sozial komun batean bizi diren ikasleen hezkuntza-esperientziak partekatzen dituzten ikastetxeak taxutu behar dira. Halatan, ikastetxeek ikasleen bizikidetasuna sustatu behar dute, albo batera utzita beren ezaugarri indibidualak edo ikasketak zer hizkuntza-eredutan egiten dituzten.

Ikasleen, irakasleen eta oro har, hezkuntza-erkidegoaren edo eskola-ingurunearen arteko bizikidetasuna sustatzeko xedez, ondoko erabaki proposamena egiten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki diren prozedurak taxutu ditzan, ikastetxe publikoetan elkarrekin bizi daitezzen hizkuntza-eredu ezberdinak, eta orobat premiatzen du hezkuntza publikoaren eskaintza berrantola dezan, bereizketa gertatu den ikastetxe guztietan sartze aldera 159/1988 Foru Dekretuan ezarritako hizkuntza-eskaintzak, foru araudian ezarrita dauden edo etorkizunean ezartzen diren eremuei dagozkienak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxe sortu berriek guxtienez ere bere eremuari dagozkion hizkuntza-eredu guztiak eskaini ditzaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxe publikoei neurri eta jarraibideak eman diezazkien, ikastetxe berean edo instalazio bereko ikastetxe ezberdinetan hizkuntza-eredu ezberdinetan eskolatuta dauden ikasleek hezkuntza- edo/eta josteta-esperientziak parteka ditzaten eskolako eguneroko bizitzan, halako moduan non ikastetxe horietako hezkuntza-proiektuek ekintza eta jarduera zehatzak jasoko baitituzte xede horrekin.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurriak eta jarraibideak ezar ditzan, ingurune fisiko berean egonda –auzoa, herria, eskola-kontzentrazioa– hizkuntza-eredu ezberdinak dituzten ikastetxe publikoetako ikasleek hezkuntza- edo/eta josteta-esperientziak parteka ditzaten, ikastetxe horietan jarduera, denbora edo espazio komunak sustatuz xede horrekin.

2013ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da desegin ditzan Nafarroaren etorkizunerako funtsezkoak diren elementuak –hala nola Nafarroako ikerketa teknologikoa, medikoa eta garapenekoak– kudeaketa pribatura bideratze aldera eginiko urratsak.**

*BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita desegin ditzan Nafarroaren etorkizunerako funtsezkoak diren elementuak –hala nola Nafarroako ikerketa teknologikoa, medikoa eta garapenekoak– kudeaketa pribatura bideratze aldera eginiko urratsak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Foru Araubideko Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Maiorga Ramírez Errok eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Foru Araubideko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Orain dela gutxi, Bildu-Nafarroak eskatuta Kontuen Ganberak eginiko txosten batean ohartaraz-

ten zen komeni zela Moderna Plana izaera publikoak izatea, eta halaxe eratu behar izanen zela hasieratik bertatik. Atzo jakin genuenez, teknologia-sare berri bat sortu da. Aditech Corporación Tecnológica du izena, eta fundazio pribatu baten bidez koordinatuko da.

Bi ekimen horien atzean dago Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren kontrolik eta kontrol publikorik gabeko organo opakua sortu nahi izatea, egiaztatuta dagoenez eraginkortasunik gabekak direnak eta Nafarroako herritarrek behar duten garapen ekonomiko eta sozialaren helburuetatik urruntzen direnak.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du desegin ditzan Nafarroaren etorkizunerako funtsezkoak diren elementuak –hala nola Nafarroako ikerketa teknologikoa, medikoa eta garapenekoak– kudeaketa pribatura bideratze aldera eginiko urratsak.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du borondate irmoa duela Moderna Fundazioa eta Aditech Corporación Tecnológica izenekoak koordinatuko duen fundazioa publikoak izan daitezen eta kontrol publikoaren mende egon daitezen.

3. Nafarroako Parlamentuak berresten du bere borondatea dela Osasun ikerkuntzako Institutua NUPen jarduerari lot dakion zuzenean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak balorazio oso ona egiten du Iturrondo Prestakuntza Zentroak alor guztietan eginiko lana dela-eta.**

### *SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak balorazio oso ona egiten baitu Iturrondo Prestakuntza Zentroak alor guztietan eginiko lana dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin argitzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Burlatako Iturrondo Prestakuntza Zentroak berrikuntzako eta kalitatezko prestakuntza-ekintzak taxutu eta ematen ditu nagusiki, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko pertsonen laneratzen laguntzeko eta haien enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza programak eta proiektuak garatzen ere

Gainera, 2006an proiektu berri bati ekin zion, ondoko premisatik abiatuta: lan-merkatuan sartzeko dauden bideetako bat da bakoitzak bere lanpostua sortzea, enpresa berri bat abian jarritz. Une horretan detektatu zen beharrezkoa dela ez bakarrik autoenpleguari buruzko sentsibilizazioa, baizik eta enpresa-idea bat argitzeari, negozio-plan bat egiteari eta bakoitzak bere enpresa abian jarri eta sendotzeari begirako laguntza ere.

Proiektuak ondoko helburuak izan ditu: Kultura ekintzailea sustatzea, beharrezkoak diren tresnak jarritz laneratzea errazteko autoenpleguaren bidez; jarrera positibo bat lortzeko; beren enpresa-proiek-

turako beharrezkoak diren baliabideak interesdunen eskura jartzeko, eta enpresa-proiektua garatu, sendotu eta mantentzeko egoki diren laguntza emateko.

Ekintzailtza proiektu hori prestakuntza zentroko ikasleei zuzendurik zegoen batik bat, eta lehen-tasuna ematen zien autoenpleguaren profilari gehien doitutako espezialitateetan izena emandakoei, prestakuntza zentroari lotutako kolektiboari, eskola-tailerretako edo lanbide-etxeetako, beste proiektu batzuetako ikasleei, eta abar; negozio-idea bat duten pertsonen, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu agentziek edo Nafarroako beste erakunde batzuek igorritakoei (baina) beren proiektua abian jartzeko laguntzarik eta baliabiderik ez dutenei.

Lortu diren emaitzak apartak izan dira, zentroak beren proiektuen gaineko aholkularitza egin zezan nahi zuten pertsonen kopurua igo izanak erakusten duenez. Halatan, 2006an 62 proiektu berriren gaineko aholkularitza egin zen; 2007an, 99rena; 2008an, 108rena; 2009an, 200ena; 2010ean, 200ena ere; 2011n, 330ena; 2012an, 643rena, eta 2013an, orain arte, ia 700 proiekturena.

Halaber, 2013an azterlan bat egin da 2012an hasi eta oraindik abian jarraitzen duten proiektuei buruz, eta horien emaitza-tasa % 70ekoa zen, proiektu ekonomikoki bideragarri eta jasangarriak direlako.

Zentro horrek, oro har, tamaina txiki edo ertaineko proiektuak aztertzen ditu; hortaz, baliabide gutxiko eta besteren konturako lana bilatzeko zailtasunak dituzten pertsonen laguntzen die.

Proiektu horri bideratutako baliabideak ez dira neurrigabeak, emaitza arrakastatsuak ikusita, 100.000 € ingurukoak direlako.

Orain dela gutxi Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren komunikazio bat jaso dute, zeinean adierazten baitzaie 2014ko urtarriletik aitzina, erabaki politiko baten ondorioz, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren ikastaroak eta tailerrak baizik ez dutela emanen, eta ez dutela ekintzailtza sustatzeko proiektuen gaineko aholkularitzarik egingen.

Uste dugu proiektu txikiak direla, bertan behera geldi daitezkeenak aukera hori ixten baldin bada.

Horregatik guztiagatik, emaitzak ikusita eta uste dugulako benetan garrantzi handikoak direla bai ekintzailera, bai horren gaineko aholkularitza, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak balorazio oso ona egiten du Iturrondo Prestakuntza Zentroak alor guztietan eginiko lana dela-eta; bereziki, ekintzaileentzako aholkularitzari dagokionez.

2. Nafarroako Gobernuari exijitzen diogu beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak jartzen jarrai dezan, Iturrondo Prestakuntza Zentroak ekintzaile txikientzako aholkularitza eta laguntza ematen jarraitu ahal izan dezan, lortutako emaitza onei eta hortik heldu den enplegu-sorrera garrantzitsuari erreparatuta.

Iruñean, 2013ko azaroaren 21ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultzatzea eta har ditzan, jabeen erkidegoek azken kontsumitzaileen katalogazioa edukitzeko.**

### *SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultzatzea eta har ditzan, jabeen erkidegoek azken kontsumitzaileen katalogazioa edukitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzeko eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Espanian, herritarren % 97 inguru bizi dira jabeen erkidegoetan; alegia, jabetza horizontalararen araubideari lotutako eraikinetan. Hori dela-eta, Espainiako gizarteak dituen arazoak erakusleihen aparta dira jabeen erkidegoak.

Sozialisten parlamentu-taldea kezkatuta dago berankortasunaren igoserarekin, bereziki jabeen erkidegoei dagokienez.

Ez-ordaintzeak bilakatu dira jabeen erkidegoen arazo nagusia; izan ere, jabeen erkidegoek gaur egun aurkezten dituzten erreklamazioen % 82 baino gehiago izatera igaro dira.

Jabeen erkidegoak ikusten ari dira nola bankuentitateak berankor nagusi bihurtzen ari diren beren parte ordaintzeko betebeharrari dagokionez, zeinak ahalbidetuko bailuke gastu komunei aurre egiten eta erkidegoan edozein zaharberitze edo hobekuntza proiektuari ekiten.

Erkidego-gastuei aurre egiteko ordainketen atzerapen horrek porrotaren atarian jartzen ditu erkidegoak, eta, zenbait kasutan, beren betebeharrak betetzen dituzten jabeak behartzen ditu beren ekarpenak handitzera, erkidegoak ematen dituen zerbitzuak mantendu ahal izateko edo eraikinetan zenbait erreforma egiteko.

Nafarroako Lurralde Behatokiaren Dokumentazio Zentroan jasotako informazioaren arabera, jabeen erkidegoek jasan behar duten berankortasun guztiaren % 16 egiten du finantza-sektorearen berankortasunak, batez beste.

Nafarroan, jabeen erkidegoek 20 milioi euroko zorra dute. Horietatik 3 milioi –hau da, % 15– finantza-erakundeek jabeen erkidegoekin duten berankortasunari dagozkio.

Bankuen zor egiaztatua garrantzia larriagotzen duen beste ezaugarri bat da lehendabiziko e-

txebizitzak hipoteka-exekuzioko prozeduren artean duen pisua eta banku-berankortasunarekiko korrelazioa.

Finka Administratzaileen Elkargoak egiaztatu du finantza-entitateek ordaintzeari uko egitea jokabide oso orokortua dela, eta horrek jabeen erkidegoak behartzen ditu beren eskubideak prozedura judizial bidez exijitzera, zeina sarritan ez baita baliatzen ezta berankor setatsuenekin ere, zeren epaitegietara ailegatu aurretik ordaindu ohi dute.

Horrenbestez, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu, eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egoki diren neurriak bultza eta har ditzan, jabeen erkidegoek azken kontsumitzaileen katalogazioa edukitzeko, zertarako eta ez dakizkien tasa judizialak aplika ez-ordaintzeak berreskuratzeko prozesuetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egoki diren aldaketak bultza eta egin ditzan Jabetza Horizontalari buruzko Legean, azken bost urteetako berankorrek kuotak ez ordaintzeagatik erantzuteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat taxutu dezan, Espai-

niako Gobernuak egin beharreko lege-aldaketak egiten ez dituen bitartean eta Nafarroako jabeen erkidegoak jasaten ari diren lege-babesgabetasun egoera konpontzearen, finantza-entitateen baten zorrak direla-eta Jabetza Horizontalari buruzko Legeak ezartzen dituen betebeharrak betetzerik ez duten erkidegoetan sortzen diren egoerei aurre egiteko. Planean jasoko dira erkidegoei aholkularitza juridikoa emateko jarduketak, bai eta erkidegoari dagozkion lege-ekintzak egiteagatik kalteak edo zergak ekiditeko neurriak ere.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako jabeen erkidegoekin zorrak dituzten finantza-entitateak premiatzen ditu lehenbailehen bete ditzaten beren ordainketa-betebeharrak, erkidego horiek beren gastu arruntei aurre egin ahal izan diezaieten eta erkidegoan beharrezkoak diren zaharberritze edo hobekuntza proiektuei ekin ahal izan diezaieten.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jendaurrean ezagutzera eman dezan Nafarroako jabeen erkidegoetan zorrak dituzten finantza-entitateen zerrenda, eta bertan zehaztu ditzan entitate horietako bakoitzak konzeptu horiengatik duen zorraren zenbatekoak.

Iruñean, 2013ko azaroaren 21ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta gizonen eta emakumeen berdintasuna eta genero indarkeriarik eza sendotzeko proposamen zehatz eta errealak prestatu eta babesteko.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak konpromiso irmoa hartzen du emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko proposamen zehatz eta errealak prestatu eta babesteko eta gizonen eta emakumeen berdintasuna eta genero indarkeriarik eza sendotzen ahalegintzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du emakumeen osotasun fisikoaren eta duintasunaren aurkako mespretxu edo eraso ñimiñoena ere adierazten duen egintza oro baztertzeko, eta agenda politikoan lehentasuna emateko emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko borrokari.

3. Nafarroako Parlamentuak aldeko jarrera agertzen du Nafarroako Gobernuak Berdintasunerako Erakunde Autonomo Independentea berreskura eta berrezar dezan, genero-zeharkakotasuna eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa bermatze aldera Foru Administrazioako arlo guztietan. Erakunde horrek bere estatutuak izan behar ditu eta Nafarroan gizonen eta emakumeen berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzea izan behar du helburu eta xede”

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak onesten du Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguneko manifestua.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak elkartasuna agertzen die genero-indarkeria jasan duten eta jasaten ari diren emakume guztiei eta erabat gaitzesten ditu horrelako ekintzak, pertsonen beren duintasuna eta eskubideak kendu, autonomia ukatu eta eskubide osoko herritar direnak menpeko otzan bilakatu nahi dituztenak.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Genero Indarkeriaren aurkako Lege Integrala gara dezan eta neurri gehiago antola ditzan, gizartearen gaitz horren aurka borrokatzeko ezinbesteko tresnak baitira, eta behar diren diru nahiz giza baliabideez horni ditzan.

Nafarroako Parlamentuak uste du behar-beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak bultzatu eta sendotzea genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko zentroetako lana, emakume horientzako laguntza juridikoa, emakumeen sustapenarekin eta babesarekin zerikusia duten programak, informazioguneak, abegi-etxeak eta genero-indarkeriaren biktimak suspertzeko programak.

Nafarroako Parlamentuak ezinbestekotzat jotzen du nerabe eta gazteei zuzendutako programa indartsu bat erabiltzea hezkuntza sisteman, genero-indarkeriaren jatorrizko kausei aurrea hartzeko eta horiek errotik ezabatzeko.

Nafarroako Parlamentuak gizarteari eta komunikabideei dei egiten die ez dezaten inondik inora jasan giza eskubideen urratze hori”

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin. Hiesari aurrea hartzeko eta ukitutako pertsonen zuzenean laguntzeko egiten duten lana txalotzen eta eskertzen die administrazio publikoari, Hiesaren Aurkako Nafarroako Batzorde Hiritarra edo Sare bezalako gizarte-erakunde eta GKEei eta osasun zein hezkuntza arloetako langilei.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du behar adina baliabide eman behar zaiela horretan lan egiten duten entitateei, eta uste du prebentzioan inbertitzea osasun publikoko kontua dela,

eta, halaber, etorkizunean izurri hau betiko ezabatu ahal izatea bermatuko duela.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela aurrera egitea sexu-hezkuntzaren eredu integrala izan arte, departamentuen, osasun eta hezkuntza arloetako profesionalen eta GKEen artean koordinatua, sexu-osasuna eta balizko arriskuen prebentzioa aintzat hartuko dituen.

4. Nafarroako Parlamentuak herritar guztieiadore ematen die abenduaren 1ean ospatuko den Hiesaren Aurkako Nazioarteko Egunaren inguruko ekimenetan aktiboki parte har dezaten.”

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere nahia dela urtero handitu daitezela berdintasun politikak gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere nahia dela urtero handitu daitezela berdintasun politikak gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela partaidetzan oinarritutako prozesuak abian jartzea edo halakoak bultzatzen jarraitzea, emakumeek jai giroko erritu sinbolikoe-tan eta gizarteko zein kulturako esparru guztietan parte har dezaten sustatzea helburu.

3. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du emakumeen ahalduzko programak susta-

tu eta garatzeko, emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzen dioten jarduerak egin daitezela eta gizonekiko lankidetzaren bultzada bultzatzea.

4. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du indarkeria matxistaren aurkako protokoloa prestatu eta abian jartzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak deia egin nahi du mugimendu feministak egun horretarako antolatutako mobilizazio eta jarduerak guztietara biltzeko. Nafarroako Parlamentuak adierazten du oso garrantzitsua dela egun horretan kalera irtetea eta edozein eratako indarkeria matxistatik guztiok askatu arte lanean segituko dugula aldarrikatzea.”

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Antsoingo abortu-klinikako atarian hertsapen eta erasoen xede izan diren emakumeei babesa eta elkartasuna adierazten zaie.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela poliziak eta justiziak ikertu eta zehaztea nork egiten dizkien hertsapen eta erasoak Antsoingo abortu-klinikara joaten diren emakumeei, ekintza horiei amaiera eman eta bidezko diren erantzukizunak eskatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du modu aktiboan defendatzeko emakumeek askatasunez haurduntza eteteko duten eskubidea, eta adierazten du beharrezkoa dela Nafarroako

Gobernuak eta gainerako administrazio publikoek ere hori egitea.

3. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna agertzen die Antsoingo abortu-klinikako atarian hertsapen eta erasoen xede izan diren emakumeei.

4. Nafarroako Parlamentuak berriro adierazten du Nafarroako osasun zentro publikoek hartu behar dutela Foru Komunitatean haurduntzaren borondatezko etetearen ardura.”

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa agertzen du Gamesak iragarritako kaleratze berriak direla eta.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa agertzen du Gamesa enpresak iragarri dituen berehalako kaleratze berriak direla eta.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Gamesak bertan behera utzi behar dituela kaleratze horiek.

3. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna agertzen die kaleratutako langileei eta Gamesako plantilla osoari, eta lanpostuak

defendatzeko erabakitzen dituzten ekintzetarako babesa eskaintzen die.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die energia berriztagarrien aldeko apustu sendoa egin dezatela, eta Espainiako Gobernuari zehazki eskatzen dio sektore elektrikoaren arauketan energia berriztagarriei garatzen utz diezaiela, horrela tresna erabilgarri bilakatuko baitira enplegua sortzeko eta klima aldaketaren aurkako borrokarako.”

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta aitortza adierazten die D ereduko irakasleei.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta aitortza adierazten die D ereduko irakasleei eta

irmo arbuiatzen du haiiek gaizkiletzat erakusteko ahalegin oro”

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin.

2. Herritarrei eskatzen die sentibera daitezela eta aktiboki parte har dezatela, izurri hau gizartetik erauzteko.

3. Babesten du Emakumeen Aurkako Indarke-

ria Desagerrarazteko Estrategia (2013-2016), Espainiako Gobernuak bultzatua.

4. Berrito adierazten du beharrezkoa dela Nafarroan genero-indarkeriaren aurkako lege berria izatea, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bizkor igor dezala lege hori Legebiltzarrera, alde zuzenetik ahalik eta adostasunik handiena bilduta.”

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa agertzen dio hezkuntza komunitateari, edozein dela ere irakaskuntzarako erabiltzen den hizkuntza eredia.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta aitortza agertzen dio hezkuntza komunitate osoari, edozein dela ere irakaskuntzarako erabiltzen den hizkuntza eredia.

2. Nafarroako Parlamentuak irmo arbuiatzen du hezkuntza sistema hezkuntzaz kanpoko xedetarako erabiltzeko ahalegin oro”

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako udalek aukera berdintasunerako agenteak kontratatu ahal izateko aurrekontu-esleipena ordaintzeari buruzkoa.***MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako udalek aukera berdintasunerako agenteak kontratatu ahal izateko aurrekontu-esleipena ordaintzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuo Gizarte Politiketako kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Iragan otsailaren 1ean, Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernuak

premiatzen zuena berdintasuneko udal agentearen figuraren sendotzea bultzatzea eta jarraipena eman ziezaien Nafarroako udalek orain arte balia zitzaketen bi diru-laguntza lerroei –aukera berdintasuneko agenteen kontratazioa eta berdintasunaren aldeko ekintzak–, profesional horien kontratazioaren seigarren urtea gainditzen duten udalentsako laguntza ekonomikoa bermatuz.

Heldu zaizkigun informazioen arabera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako zenbait udali jakinarazi die ez dutela jasoko berdintasunerako udal agenteak 2013an kontratatze aldera Gobernuak esleiturik zuen dirua. Iturri horiek berek diotenez, erabaki horren arrazoa da Ogasunak izoztuta dituela aurrekontuko 20 milioi, oraindik ezagutzen ez den defizit-aurreikuspen bat betetzeko.

Hori guztia dela-eta, honako ahozko galdera hau egiten dugu:

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Nafarroako udalek aukera berdintasunerako agenteak kontratatu ahal izateko aurrekontu-esleipena ordaintzeko?

Iruñean, 2013ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza



## **Galdera, 2014an zehar Biziaren Autobusa finantzatzeko formulari buruzkoa.**

*SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, 2014an zehar Biziaren Autobusa finantzatzeko formulari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, "Biziaren Autobusa" izenekoari eta 2014an zehar autobusa finantzatzeko formulari buruzko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuo Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Gure parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko maiatzaren 10ean eztabaidatu eta onetsitako mozio batean adierazi bezala, ospitale-arteko garraioak, zeina "Biziaren Autobusa" izenez ere ezagutzen baita eta Erriberako gaixoak Iruñera garraiatzeko erabiltzen baita, Tuterako Reina Sofía Ospitalean ematen ez diren tratamenduak jaso ditzen, akatsik gabe funtzionatu du urte hauetan guztietan. Mila erabiltzaile baino gehiago eduki ditu, eta inpaktu positiboa izan du horien artean.

Zerbitzu horrek zaintzen ditu duten gaixotasuna dela-eta oso ahul dauden pertsonak, eta ederki erakutsi du baduela baliagarritasun terapeutikorik; hori dela eta, pertsona horientzako oinarritzko osasun prestazio bat dela uste dugu.

Horregatik guztiatik, onetsitako mozio hori aintzat hartuta, ondoko ahozko galdera egiten dugu:

• Zer formula baliatuko da 2014an zehar Biziaren Autobusa finantzatzeko?

Iruñean, 2013ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Galdera, Etxegabetzei Arreta Emateko Batzordeari buruzkoa.**

*ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, Etxegabetzei Arreta Emateko Batzordeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva

Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapen Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak, 2013ko otsailaren 6an hartutako erabakiaren bidez, Etxegabetzei Arreta Emateko Batzordea sortu zuen. Batzorde horri dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

– Zer egunetan eratu zen batzordea.

– Gaur arte egindako bileren zerrenda.

– Hartutako erabakiak eta proposatutako neurriak.

– Gobernuaren otsailaren 6ko erabakian aipatzen den jarduketa protokoloaren edukia.

Iruñean, 2013ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa, 2014an zehar Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat sustatze aldera.**

*AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa, 2014an zehar Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat sustatze aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer urrats egin ditu orain arte, eta zer egiteko asmoa du, Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena 2014an zehar ospatzeko ekitaldi-programa bat sustatze aldera Parlamentuak 2013ko martxoaren 21ean onetsitako mozioa dela-eta?

Zer ekitaldi aurreikusi ditu mendeurren hori ospatzeko?

Iruñean, 2013ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

## **Galdera, Haur Hezkuntzako ikastetxeetako titularrak diren toki entitateentzako diru-laguntzei buruzkoa.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Haur Hezkuntzako ikastetxeetako titularrak diren toki entitateentzako diru-laguntzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Uztailaren 25eko 72/2012 Foru Dekretuak, zeinak Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua aldatzen baitu, ondokoa xedatzen du lehen xedapen gehigarrian –Udal titulartasuneko ikastetxeentzako diru-laguntzen araubidea–:

"Hezkuntza Departamentuak, orain arte Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 29ko 107/2010 Foru Aginduaren babesean, berariazko diru-laguntzen araubide baten bidez finantzatu dituen udal titulartasuneko ikastetxeen kudeaketa gastuen finantziazioan hartuko du parte. Foru agindu horren bidez, Udal titulartasuneko haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa eta ekipamendua finantzatzeko asmoz, Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean lankidetzaz hitzarmenak sinatzeko oinarriak ezarri ziren. Finantziazioa jasotzeko, ikastetxeek martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuaren eranskinetako hezkuntza edukiak transmititu behar dituzte, proposamen pedagogikoan zehazturik. Horrez gain, haurrei arreta zuzenean ematen dieten profesionalek Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak eta bera garatzen duten

arauek (edo hura ordezkatzeko dutenek) eskatzen dituzten tituluak izan behar dituzte".

Halatan, 2012-2013 ikasturtearen hasieratik baino lehenagotik, diru-laguntzen araubide berariazko bat aurreikusi zen ikastetxe horientzat, zeinek, ordura arte, lankidetzaz hitzarmenak egin ohi ziren (abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduren 2.3 artikulua). Halere, azaldutako egoera horretan dauden toki entitateek eta bertako ikastetxeek urtebete baino gehiago egon behar izan dute Hezkuntza Departamentuaren euro bakar bat ere jaso gabe; hortaz, udalek funts berekien bidez finantzatu behar izan dituzte, oso-osorik, 2012-2013 ikasturteko kudeaketa gastu guztiak, nahiz eta egoera ekonomiko larrian egon eta lehen xedapen gehigarri horretan ezarritako betekizun guztiak bete.

2013ko abuztura arte, berriz, ez ziren onetsi, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren 411/2013 Ebazpenaren bidez, entitate horiei kasuko diru-laguntzak emateko deialdia eta oinarriak. Ebazpen horren hirugarren oinarriko a) letran xedatzen denez, "Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduan aurreikusitako irizpideak aplikatuta legokiokeenaren %90ekoa izan da Hezkuntza Departamentuaren ekarpena, hezkuntza behar bereziko ikasleek arduratzen diren langileak finantzatzeko ekarpena salbu, horrexek ez baitu muga hori izan". Letra horren irakurketatik eta Departamentuak toki entitateei helarazitako asmoetatik uler daiteke Nafarroako Gobernuak, berandu bada ere, udalen diru-kutxa kolpatuei 2013a bukatu baino lehen emanen diela 2012-2013 ikasturtean lankidetzaz hitzarmenaren araubidean legokiokeenaren %90a.

Toki entitate horiek, ordea, beste ezusteko desatsegin batekin egin dute topo; izan ere, diru-laguntza horiek ebazteko unean, % 90eko ehuneko hori ez da inondik ere bete hirugarren oinarri horretako c) letrari jarraituz; horren arabera, "aurreko irizpideak aplikatuz onuradunak diren toki entitateei dagozkien diru-laguntzen zenbateko metatuak deialdi honetarako baimendutako gastua gainditzen badu, bidezko hainbanaketa eginen da, laguntzen kopurua aurrekontu erabilgarriari egokitzeko".

Hirugarren oinarri horren beraren d) letrak xedatzen duenez, "Betiere, 2013. urtean, Hezkun-

tza Departamentuak funts gehigarriak baditu deialdi honetarako aurrekontua handitzeko, ematen diren laguntzen zenbatekoa handitzen ahalko da, harik eta klausula honetako a) atala aplikatuz onuradunei legokiekeen zenbatekoa jo arte". Halaber, Hezkuntzaren zuzendari nagusiaren urriaren 10eko 531/2013 Ebazpenaren bidez aldatu da aipatu deialdi hori, letra horri dagokionez, eta zehaztu da ezen "kopuru gehigarria eraginkorra izanen dela lehen aipatu inguruabarraren ondorioz kreditu erabilgarriak adierazten bada".

Hori guztia kontuan hartuta, foru parlamentari honek ondoko galderak egiten dizkio kontseilariari:

1. Haur Hezkuntzako ikastetxeen titular diren zenbat toki entitate daude egoera horretan?

2. Zenbatekoa da gaur egun Departamentuak ikastetxe horietako bakoitzari egindako ekarpenaren ehuneko errealia, 79/2012 Foru Aginduan ezarritako irizpideak aplikatuz legokiekeenaren aldean?

3. Zein da 411/2013 Ebazpenaren bidez onetsitako diru-laguntzen deialdiko hirugarren oinarriko a) letra aplikatuta onuradun horiei legokiekeen zenbatekora iristeko behar izanen liratekeen funts osagarrien zenbateko zehatza?

4. Departamentuak ba al du behar den kreditua gaitzeko asmorik, inguruabar hori 2013. urte hau bukatu aitzin bermatzeko?

Iruñean, 2013ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, administrazioko langile elebidunen kopuruari eta hizkuntza eskakizuna duten lanpostuei buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, administrazioko langile elebidunen kopuruari eta hizkuntza eskakizuna duten lanpostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Bildu Nafarroa

parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduak dioenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galderak egin nahi dizkio, idatziz erantzun ditzan.

Azken urteotan administrazioko milaka langile euskaldundu da edo euskalduntze prozesuan dago, baina administrazioa euskalduntzeko plan estrategiko eraginkorrik ez dagoela ikusita:

– Zenbatekoa da Nafarroako administrazioko langileen artean dauden elebidunen kopurua? Hizkuntza profilararen arabera sailkapena ere eskatuko genuke, departamentuka.

– Zenbat eta zeintzuk dira Nafarroako administrazioan hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak? Horiek ere departamentuka sailkatuta nahiko genituzke.

Iruñean, 2013ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, Nafarroako Baso Biomasaren I. Feria iragartzeko afixetatik euskara kendu izanaren zergatiari buruzkoa.**

*MIREN JULIA ARANOASTIGARRAGA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Baso Biomasaren I. Feria iragartzeko afixetatik euskara kendu izanaren zergatiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Foru parlamentari Miren Aranoa Astigarragak, Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuako organo eskudunak idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalarekin eta beste erakunde batzuekin batera, Nafarroako Baso Biomasaren I. Feria antolatu du azaro honetan. Hedabideen bidez jakin izan genuenaren arabera, jardunaldi horiek iragartzeko afixa euskaraz eta gaztelaniaz egin zen hasiera batean; halere, geroago afixaren diseinua aldatu zen, eta euskara afixatik desagertu zen.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Zergatik desagerrarazi da euskara afixa horietatik?

Iruñean, 2013ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

## **Galdera, Nafarroan fundazioen titulartasuneko ikastetxeetako eta ikastetxe erlijiosoetako ikasleen familientzako %25eko desgrabazioak dirubilketan duen eraginari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan fundazioen titulartasuneko ikastetxeetako eta ikastetxe erlijiosoetako ikasleen familientzako %25eko desgrabazioak dirubilketan duen eraginari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Nafarroan fundazioen titulartasuneko ikastetxeetako eta ikastetxe erlijiosoetako ikasleen familientzako %25eko desgrabazioak zer eragin du dirubilketan? Azken 10 urteotako zerrenda eskatzen dugu.

Iruñean, 2013ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, entzierroko pilaketaren ondorioz 112 zenbakiko koordinazio-salaren bidez ospitaleetara egin ziren zauritu-garraioei buruzkoa.**

### *LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Samuel Caro Sádaba jaunak aurkezturiko galdera, entzierroko pilaketaren ondorioz 112 zenbakiko koordinazio-salaren bidez ospitaleetara egin ziren zauritu-garraioei buruzkoa (2013ko azaroaren 15eko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldiz-

kari Ofizialean argitaratua) aldatzea, halako moduan non Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak erantzun baitu.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Galdera, Esako Lasaitasuna urbanizazioan izandako kalteen konponketari buruzkoa.**

### *LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko galdera, Esako Lasaitasuna urbanizazioan izandako kalteen konponketari buruzkoa (2013ko azaroaren 22ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) aldatzea, halako

moduan non Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak erantzun baitu.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, Barañaingo Udalari buruzkoa, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (23. or.).
- II. Helburua (28. or.).
- III. Norainokoa (28. or.).
- IV. Iritzia (28. or.).
  - IV.1. Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra (28. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (29. or.).
  - IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2012ko abenduaren 31n. (29. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (32. or.).

V. Udalaren 2012ko kontu orokorraren laburpena (33. or.).

V.1. 2012ko aurrekontu bateratuaren bete-tearen egoera-orria (33. or.).

V.2. 2012ko aurrekontu-emaitza bateratua (33. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n (34. or.).

V.4. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (35. or.).

V.5. Galera eta irabazien kontu bateratua (36. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (37. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (37. or.).

VI.2. Langileak (37. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (39. or.).

VI.4. Inbertsioak (40. or.).

VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (41. or.).

VI.6. Hirigintza (42. or.).

VI.7. Sozietate eta fundazio publikoak (43. or.).

I. eranskina. Fundación Auditorio Barañáin/Barañáin Auditorioa Fundazioa (44. or.).

II. eranskina. 2012ko ekitaldiari dagokion kontu orokorraren memoria.

(Oharra: Aipatutako II. eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan eta honako web helbidean:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).




## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, Bere jarduera-programari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2012ko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Barañaingo udalerrriak 1,4 km<sup>2</sup>-ko azalera dauka, eta 21.444 biztanle dauzka 2012ko urtarilaren 1ean.

Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaera honako grafiko honetan ikusten da:



2012ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Administrazio publikoaren arloa, Barañaingo udalak berak eta haren erakunde autonomoek, "Lagunak" udal zerbitzuak eta "Luis Morondo" musika eskolak osatua; hauek dira erakunde hauen daturik garrantzitsuenak (eurotan):

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2012-12-31n
Udala	11.258.643	12.182.090	130
"Lagunak" Udal Zerbitzua	1.904.599	2.051.910	13
"Luis Morondo" musika eskola	863.844	863.563	20
Bateratzeko doitzeak	(322.637)	(322.637)	-
<b>Guztira</b>	<b>13.704.449</b>	<b>14.774.926</b>	<b>163</b>

Udalak bere erakunde autonomoentzat 2012an egin dituen ekarpenak hauek izan dira: 22.637 euro "Lagunak" udal zerbitzuarentzat eta 300.000 euro "Luis Morondo" musika eskolarentzat.

- Enpresen sektore publikoa. 2004ko azaroan, Udalak bere onespena eman zion "Baraberi S.L." sozietate mugatua eratzeari; sozietate honen kapital osoa udalarena da. Enpresa honen xedea hirigintza-garapeneko zerbitzuen eta Barañainen Garapen Integralerako Zerbitzuan sarturik dauden zerbitzu ekonomikoen kudeaketa da. Sozietatearen kapitala 9.000 eurokoa da. Sozietate hau, aurreko ekitaldietan, formalki eratu gabe zegoen oraindik, eta sortu zenez gero ez du jarduerarik izan. 2012an, sozietatea hori, ganbera honen gomendioei jarraituz, likidatu egin da, eta bere garaian jarri zen hasierako kapital soziala berreskuratu da.

- Fundazioen sektore publikoa. Udalak, 2003ko urtarrilean, Barañain Auditorioa Fundazioa eratu eta bere babespean ezarri zuen; fundazio honen

xedea Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa kudeatzea eta administratzea da. Fundazio honen balantzea eta emaitzen kontua II. eranskinean daude jasota. 2012ko abenduaren 31n fundazio honek 6 langile zituen bere plantillan.

- Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Taula honetan erakusten da zerbitzu horiek guztiek Udalari 2012an ekarri dioten gastua:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2012an
Eskualdeko hiri-garraioa	329.152
Ibai Parkea	24.119

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	Erakund	Mankomunitate	Zerbitzu-kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	x			
Musika eskola		x		
Hirigintza	x			
Uraren ziklo integrala			x	
Hiri-hondakinak			x	
Hiri-garraioa			x	
Bideak garbitzea				x
Parkeak eta lorategiak	x			
Udal kiroldegia	x			x
Atletismo-pistak	x			x
Retegi frontoia		x		
Kirol jardueren kudeaketa	x	x		x
Liburutegia	x			
Ludoteka	x			x
Etxeko laguntza	x			x
Babestutako enplegu soziala	x			
Kultur Etxea	x			
Hezkuntza	x			
Euskara	x			
Berdintasuna				x
Gazteak	x			x
Herritarren Arretarako Bulegoa	x			
Errrolda	x			
Hiritarren Partaidetza	x			
Lan-mundura sartzeko Bulegoa	x			x
Immigrazio Zerbitzua	x			x
Telezentroa	x			
Mentor Aretoa	x			
Diru-bilketa	x			
Diru-bilketa exekutiboa	x			x

Toki entitateari 2012ko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Orokorrak Nafarroako toki entitateetan aplikatzekoa dena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten du-ena.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, enplegurako eta tokiko iraugarritasunerako estatuko funtsa sortu zuena.

Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak, dira.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukortasunari buruzkoa.

19/2011 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko pre-sako neurriei buruzkoa.

2/2012 Legea, ekainaren 29koa, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahaltenaren galera dela-eta.

Martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legea, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena.

Abenduaren 21eko 246/2011 Foru Dekretua, Kontratuari buruzko Foru Legearen Europar Batasuneko atalaseak eguneratzen dituena.

- Berariazko araubidea:

2012ko aurrekontuaren betetze-oinarriak.

Tributuak arautzen dituzten ordenantzak.

Diru-laguntzak emateari buruzko oinarri arautzaileak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau ere barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2012ko kontu orokorren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, kontu horren laburpen bat ematen dugu, haren finantzen egoera-orri nagusiekin. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Horiez gainera, bi eranskin daude: bata, Barañain Auditorioa Fundazioaren kontuekin –kontu horiek, formalki, Udalaren kontu orokorren atal bat ez badira ere, eranskin gisa sartzen dira txosten honetan– eta bestea Udalak 2012ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkia jasotzen duena.

Barañaingo Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Barañaingo Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Zenbateraino bete den Udalak 2012an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia.

- Udalaren finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n.

- Ganbera honek 2011ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

## III. NORAINOKOA

Barañaingo Udalaren 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Erakundearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontua: Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: Egoera-orri bateratuak (Udala eta era-kunde autonomoak), memoria, zorraren egoera eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Indarrean dagoen legediaren arabera, Barañain Auditorioa Fundazioaren kontuak Udalaren kontu orokorrean sartzen ez badira ere, txosten honen eranskin gisa jarri ditugu.

Erakunde autonomoen kudeaketa administratiboa eta kontularitzari eta aurrekontuari dagokiona modu deszentralizatuan egiten da.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontu-sail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomoiei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoerorien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

Arestian esan dugun bezala, "Baraberri, S.L." sozietatea 2012an likidatu da.

Barañain Auditorioa Fundazioaren 2012ko urteko kontuak ez dira ekitaldi honetan ikuskatu. Txosten honetan, kontu horien laburpen bat sartu dugu.

## IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Barañaingo Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau ateratu dugu:

### IV.1. UDALAREN 2012ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen ondasunen inbentarioa 1992koa da, eta eguneratu gabe dago oraindik; horregatik, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko "ibilgetuaren" kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2012ko abenduaren 31n, 33,8, milioi eurokoa zen.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finan-

tzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2012ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkotasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

#### IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANZARIOA 2012ko ABENDUAREN 31n.

Ez da onetsi Udalaren 2012ko hasierako aurrekontu bateratua; ho-rrenbestez, 2011koa luzatu da. 15,2 milioi euroko gastuak eta 15,8 milioi euroko diru-sarrerak dauzka. Onetsi diren aurrekontu-aldaketen bidez lortu den behin betiko aurrekontuan, 15,5 milioi euroko gastuak eta 15,9 milioi euroko diru-sarrerak daude.

Aitortutako betebeharrak 13,7 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 88,5eko betetze-maila izan dute. Betetze-mailarik handiena izan duten kapitu-

luak pasibo finantzarioena –ehuneko 100–, transferentzia arruntena –ehuneko 94,2– eta ondasun arrunten eta zerbitzuena –ehuneko 89,6– izan dira; aitzitik, inbertsioen, finantza-gastuen eta langileen kapitulueta betetze-maila batez bestekoa baino apalagoa izan da –ehuneko 85,9, ehuneko 35,3 eta ehuneko 87,3, hurrenez hurren–.

Aitortutako eskubideek 14,77 milioi euro hartzen dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 93,2koa da. Zuzeneko zergak eta tasak ia osorik gauzatu dira; zeharkako zergetan, berriz, ehuneko 75,5ekoa baizik ez da izan betetze-maila, eta inbertsio errealean besterentzeari dagokion kapitaluan ehuneko 18,6ra iritsi da.

Gastuen izaerari begiratuz gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 96 eta ehuneko 2 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrei dagokienez, diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 100 dira; diru-sarrera horien ehuneko 49 jasotako transferentzietatik datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa
Langileak	51	Tributu bidezko diru-sarrerak	49
Bestelako gastu arruntak	45	Transferentziak	50
Inbertsioak	2	Ondare bidezko diru-sarrerak/Inbertsio errealean	1
Finantza-zama	2		
<b>Guztira</b>	<b>100</b>		<b>100</b>

Hona Udalaren 2012rako aurrekontu bateratuaren betetzeari eta betetze horren 2011koarekiko alderaketari buruzko adierazleak (eurotan):

Adierazleak	2011	2012
Aitortutako betebeharrak, guztira	14.060.889	13.704.449
Likidatutako eskubideak, guztira	14.362.507	14.774.926
Gastuen exekuzioa (%)	89,20	86,45
diru-sarrerren betetzea (%)	91,11	93,20
Ordainketak (%)	92,81	92,61
Kobratutakoa (%)	95,75	95,72
Gastu arruntak (1etik 4ra)	13.550.439	13.133.881
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	13.519.249	13.105.967
Inbertsioen gastuak (6 eta 7)	227.700	287.818
Finantza-eragiketen gastuak (8 eta 9)	282.750	282.750
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	14.354.392	14.556.684
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	7.104.894	7.232.547
Kapitaleko diru-sarrerak (6 eta 7)	8.115	218.242
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	50,30	50,24
Gastu arruntren gaineko tributu bidezko diru-sarrerak (%)	52,43	55,06
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	584.368	1.353.227
Aurrekontu-emaizta doitua	301.618	1.070.477
Aurrezki gordina	835.143	1.450.717
Finantza-zama (3tik 9ra)	313.940	310.664
Aurrezki garbia	521.203	1.140.053
Zorpetze-maila (%)	2,19	2,13
Zorpetze-muga (%)	5,82	9,97
Zorpetze-ahalmena (%)	3,63	7,83
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	628.747	1.296.323
Udalaren zor bizia	1.960.858	2.311.664
Zor bizia biztanleko	91	108
Diru-sarrera arruntren gaineko zor bizia (%)	% 13,66	% 15,88
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	2,35	1,59

2012an, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 2,5 gutxiago gastatu du; gastu txikiago horren arrazoia da, funtsean, langile-gastuek ehuneko 6,71 egin dutela behera. Bestalde, diru-sarrerak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 2,87 handiagoak izan dira. Igoera hori diru-sarrerren kapitulu guztietan gertatu dira.

Gastu arruntak ehuneko 3 jaitsi dira, langile-gastuak jaitsi direlako, batez ere; diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko 1,4 egin dute gora, batez ere zuzeneko eta zeharkako zergek gora egin dutelako. Transferentzia arruntek ehuneko 1 egin dute gora.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa (diru-sarrerak gastu ez-finantzarioak) 1,4 milioi positiboa da, eta ehuneko 131 egin du gora 2011koarekin alderatuta.

Aurrekontu-emaizta doitua 1,1 milioi eurora iritsi da; aurreko urtean, berriz, 0,3 milioi eurokoa izan zen.

Bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak ehuneko 74 eta ehuneko 119 egin dute gora, hurrenez hurren.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 2,13koa da, eta ehuneko 9,97ko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berri baterako ahalmen ekonomikoa.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea positiboa izan zen: 1,3 milioi euro (2010ean izan zena baino ehuneko 106 gehiago).

Epe luzeko zor bizia 2,3 milioira iristen da, eta 2011n 1,91 milioi eurokoa zen; hau da, ehuneko 17,8 handitu da; zor hori –biztanle bakoitzeko 108 euroko zorra– erakundearen diru-sarrera arruntren ehuneko 15,88 da, gaur egun zorpetze berriak egiteko ehuneko 110eko legezko mugaren azpitik, alegia. 2012an lortutako aurrezki gordinaz baliatuz, 1,59 urte beharko liriteke Udalak gaur egun duen zorrari aurre egiteko.

Honakoa izan da aurrekontuaren betetzea 2006ko ekitalditik hasi eta 2012ra arte:

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Langile-gastuak	6.909.283	7.283.305	7.756.301	8.224.268	7.784.803	7.451.115	6.950.946
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	4.735.213	5.092.368	5.372.384	5.174.092	5.197.843	5.293.515	5.307.327
3. Finantza-gastuak	62.118	72.209	129.135	92.757	32.883	31.190	27.914
4. Transferentzia arruntak	988.986	1.163.303	1.178.424	937.105	829.681	774.619	847.694
6. Inbertsio errealak	1.556.566	2.153.746	2.472.686	4.501.482	2.880.496	227.700	287.818
7. Kapital-transferentziak	308.000	179.613	125.420	18.063	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	180.550	180.550	180.550	282.750	282.750	282.750	282.750
<b>Guztira</b>	<b>14.740.715</b>	<b>16.125.095</b>	<b>17.214.900</b>	<b>19.230.518</b>	<b>17.008.456</b>	<b>14.060.889</b>	<b>13.704.449</b>

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Zuzeneko zergak	3.249.519	3.301.911	3.225.247	3.346.224	3.539.260	3.492.873	3.577.126
2. Zeharkako zergak	232.696	305.968	76.303	142.136	198.578	130.577	141.971
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3.082.334	3.387.153	3.373.876	3.429.389	3.453.341	3.481.445	3.513.450
4. Transferentzia arruntak	7.633.787	7.151.757	7.725.094	7.759.409	7.538.824	7.216.466	7.267.687
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	82.140	60.326	51.689	29.627	36.899	33.032	56.450
6. Inbertsio errealak besterentzea	1.529.629	24.897	498.547	327.888	0	0	62.900
7. Kapital-transf.	469.234	1.132.511	852.393	3.961.185	0	0	155.342
9. Finantza-pasiboak	0	0	1.533.000	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>16.279.339</b>	<b>15.364.524</b>	<b>17.336.149</b>	<b>18.995.858</b>	<b>14.766.902</b>	<b>14.354.392</b>	<b>14.774.926</b>

Taulako datuetatik ondorioztatzen den bezala, Barañaingo gastuen aurrekontuak 2009ra arte hazi dira, eta hurrengo urteetan, berriz, jaitsi dira; 2012koak 2006koak baino txikiagoak dira. Adierazi beharra dago 2012ko langile-gastuak 2006koen antzekoak direla eta egindako inbertsi-oak nabarmen jaitsi direla.

Diru-sarreraren aldetik, nabarmentzekoa da, batetik, diru-sarrera arruntaren egonkortasuna eta, bestetik, ez dela zorpetzera jo, 2008an izan ezik.

Azken batean, 2012an, Udalaren finantza-egoerak ganbera honek 2011n sumatu zuen hobetzeko joerari eutsi dio. Euste horren funtsezko arrazoia da gastu arruntek –bereziki langile-gastuek– behera egin dutela. Diru-sarreraren aldetik, jokabide egokia aurkitu da lurralde-kontribuzioan (aplikatutako ehunekoa handitu delako), bai eta gainerako zergetan ere. Inbertsio errealen besterentzeak gora egin du, bai eta inbertsioei lotutako kapital-transferentziek ere.

Zorpetze-maila handitu egin da 2011n zenarekin alderatuta, zor biziaren bolumena arrazoizko

mailan dago; izan ere, oraindik ere badu zorpetzeko tarte edo ahalmen ekonomikoa.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak betetzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak bi informazio-ohar eman ditu, horietatik bi 2013an, egonkortasunari buruzko araudiaren alderdi zehatz batzuk garatze aldera.

Txosten honen eraginetarako, aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren betetzea kalkulatu da toki korporazioei egokitutako kontabilitate nazionalaren defizita kalkulatzeko eskuliburua aplikatuz –eskuliburu hori Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak egindakoa da–. E-maila hurrengo taulan azaltzen da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
I. kapitulutik VII. kapitulura bitarteko gastuak, guztira	13.421.699
I. kapitulutik VII. kapitulura bitarteko diru-sarrerak, guztira	14.774.926
Aurrekontu-emaiza finantzariorik gabe	1.353.227
Aitortzeke dauden fakturen doikuntza	811
Doikuntzak zergak direla eta	-86.647
<b>Emaitza</b>	<b>1.267.391</b>

Ikusi da ezen Barañaingo Udalak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren baldintzak betetzen dituela, zeren eta zorra ezarritako muga baino txikiagoa baita.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabilera gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarrizko baldintza izan behar dute.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDI-OEN BETETZEA

Ganbera honek 2011ko ekitaldiari buruz egin zuen txostenari erreparatuta –2012ko urrian argitaratu zen–, esan behar dago Baraberi S.L. sozietate publikoa likidatu dela, eta ikusten da

ahalegina egin dela gastuei eusteko. Halere, honako gomendio garrantzitsu hauek oraindik ere ezartzeko daude:

- *Aurrekontua legez aurreikusitako epean prestatu eta onestea, kudeaketarako oinarrizko tresna izan dadin.*

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok egon behar du bame-kontrol ekonomikoaren eta legezkoaren mende.*

- *Udal-inbentarioa onartzea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta baje jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emango du-ena.*

- *Fundazioaren urteko kontuak Udalaren kontu orokorrari eranstea, eranskin gisa gutxienez.*

- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeko.*

- *Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 1eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea.*

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen espezifikazioetara egokitzea.*

- *Lurzoruaren udal ondarea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik eratzea eta kudeatzea, lursailei eta eskudiruari dagozkien sarrerak eta irteerak bereizita erregistratuz, eta hura indarrean den araudian ezarritako xedeetarako erabiltzea.*



## V. UDALAREN 2012ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren 2012ko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala eta erakunde autonomoak)

### V.1. 2012ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

(Eurotan)

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreik.	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	Ordainketak (%)
1. Langile-gastuak	7.965.270	-	7.965.270	6.950.946	87,27	6.728.084	222.862	96,79
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	5.923.730	-	5.923.730	5.307.327	89,59	4.654.804	652.523	87,71
3. Finantza-gastuak	79.100	-	79.100	27.914	35,29	27.914	0	100,00
4. Transferentzia arruntak	899.900	-	899.900	847.694	94,20	725.623	122.071	85,60
6. Inbertsio errealak	-	334.983	334.983	287.818	85,92	272.633	15.185	94,72
9. Finantza-pasiboak	282.750	-	282.750	282.750	100,00	282.750	0	100,00
<b>Guztira</b>	<b>15.150.750</b>	<b>334.983</b>	<b>15.485.733</b>	<b>13.704.449</b>	<b>88,50</b>	<b>12.691.808</b>	<b>1.012.641</b>	<b>92,61</b>

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko eskubideak	Betetakoa (%)	Egindako	Kobratzeke dagoena	Kobrantzak (%)
1. Zuzeneko zergak	3.600.000	-	3.600.000	3.577.126	99,36	3.419.372	157.754	95,59
2. Zeharkako zergak	188.000	-	188.000	141.971	75,52	116.767	25.204	82,25
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3.509.449	-	3.509.449	3.513.450	100,11	3.358.425	155.025	95,59
4. Transferentzia arruntak	7.975.622	-	7.975.622	7.267.687	91,12	6.992.778	274.909	96,22
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	39.074	-	39.074	56.450	144,47	55.836	614	98,91
6. Inbertsio errealak besterentzea	337.985	-	337.985	62.900	18,61	62.900	0	100,00
7. Kapital-transf.	113.500	88.850	202.350	155.342	76,77	136.969	18.373	88,17
<b>Guztira</b>	<b>15.763.630</b>	<b>88.850</b>	<b>15.852.480</b>	<b>14.774.926</b>	<b>93,20</b>	<b>14.143.047</b>	<b>631.879</b>	<b>95,72</b>

### V.2. 2012ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

(Eurotan)

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	14.774.926	14.362.507
- Aitortutako betebeharrak	-13.704.449	-14.060.889
<b>= Aurrekontuaren emaitza</b>	<b>1.070.477</b>	<b>301.618</b>
<b>Doikuntzak</b>		
- Finantzetaren desbideratze positiboak		-
+ Finantzetaren desbideratze negatiboak		-
+ Diruzaintzako gerakin likidoaz finantzatutako gastuak		-
<b>= Aurrekontuaren emaitza doitu</b>	<b>1.070.477</b>	<b>301.618</b>

## V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2012ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia
<b>+ Kobratzeko dauden eskubideak</b>	778.337	700.382
(+) Gastuen Sarrerak: aurtengo ekitaldia	631.878	610.679
(+) Gastuen Sarrerak: itxitako ekitaldiak	742.955	681.488
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	39.877	21.961
+ Ordainketen itzulketak		
- Bilketa zaileko eskubideak	-636.300	-613.681
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-73	-65
<b>(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak</b>	2.812.181	2.816.524
+ Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.012.641	1.011.028
+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	33.613	39.055
+ Diru-sareren itzulketak		-
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.765.987	1.766.501
- Aplikatzeko dauden gastuak	-60	-60
<b>+ Diruzaintzako funts likidoak</b>	3.632.282	2.744.889
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak		-
<b>Diruzaintzako gerakina, guztira</b>	1.598.438	628.747
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	302.115	-
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta		-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.296.323	628.747

## V.4. 2012ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

(Eurotan)

## Jardunean

Deskribapena	2012	2011
<b>A lbilgetua</b>	33.808.318	33.586.335
1 lbilgetu materiala	24.444.752	24.465.049
2 lbilgetu ez-materiala	315.923	280.741
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	9.047.643	8.840.545
4 Herri-ondasunak	-	-
5 lbilgetu finantzarioa	-	-
<b>C Zirkulatuzailea</b>	5.047.053	4.059.077
7 Izakinak	-	-
8 Zordunak	1.414.710	1.314.128
9 Finantza-kontuak	3.632.343	2.744.949
<b>Aktiboa, guztira</b>	38.855.371	37.645.413

## Pasiboa

Deskribapena	2012	2011
<b>A Funts berekiak</b>	33.830.328	32.333.286
1 Ondarea eta erreserbak	17.622.389	16.922.147
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (mozkina)	1.341.701	700.242
3 Kapitaleko diru-laguntzak	14.866.238	14.710.897
<b>C Epe luzeko hartzekodunak</b>	2.212.728	2.550.711
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	2.212.728	2.550.711
<b>D Epe laburreko hartzekodunak</b>	2.812.315	2.761.417
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.812.241	2.761.352
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	74	65
<b>Pasiboa, guztira</b>	38.855.371	37.645.413

## V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA

(Eurotan)

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
3 Hasierako izakinak		-	3 Bukarako erosketak		-
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura		-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura		-
60 Erosketak		-	70 Salmentak	2.756.611	2.809.663
61 Langileen gastuak	6.948.243	7.445.538	71 Jabetza eta enpresa errenta	634.850	560.078
62 Gastu finantzarioak	27.914	31.190	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	2.514.087	2.436.768
63 Zergak		-	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	1.000.392	973.565
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	5.383.261	5.365.713			
65 Gizarte-prestazioak	9.443	9.782	75 Ustiapenerako diru-laguntzak		-
66 Ustiapenerako diru-laguntzak		-	76 Transferentzia arruntak	7.267.687	7.243.016
67 Transferentzia arruntak	767.955	725.369	77 Kapitalaren gaineko zergak	204.619	211.153
68 Kapital-transferentziak		-	78 Bestelako diru-sarrerak	178.438	144.736
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak		-	79 Beren helbururako aplikaturiko homidurak		-
Ustiapen-mozkina	1.419.684	801.386	Ustiatzeagatiko galerak		-
<b>Guztira</b>	<b>14.556.684</b>	<b>14.378.978</b>	<b>Guztira</b>	<b>14.556.684</b>	<b>14.378.978</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	1.419.868	801.386
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	-	-	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	555	-
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Aldak. Ibitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	174.616	101.144	84 Aldak. Ibitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	95.894	-
89 Mozkin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	1.341.701	700.242	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	-	-
<b>Guztira</b>	<b>1.516.317</b>	<b>801.386</b>	<b>Guztira</b>	<b>1.516.317</b>	<b>801.386</b>

## VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTE- EI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, kudeaketaren arlo esanguratsuenen arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak eta haren mendeko erakundeek beren antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzketen neurriei buruzko ondorio, iruzkin eta aholku nagusiak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2012ko aurrekontua onetsi ez zenez, Udalak 2012ko ekitaldian aurrekontu luzatuarekin jardun du.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1992koa da. Inbentario hori ez zen modu formalean onetsi, eta ez da gaurkotu ere.

- Udalak 1,4 milioi euroko muga duen diruzaintzako epe laburrerako kreditu bat hitzartu du azkeneko ekitaldi hauetan, unean uneko ordaindu beharrei erantzuteko. Kreditu horretatik 2012ko abenduaren 31n erabilitako kantitatea 107.818 eurokoa zen.

- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2012ko fakturarik, 2013ko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Erakunde autonomoen kudeaketa administratiboa eta kontularitzari dagokiona modu deszentralizatuan egiten da, barne-kontrolerako udal-organok egintzen gaineko kontu-hartzailletza egin gabe. Horien jarduera "a posteriori" egiten da, eta aurrekontuaren eta haren kitapenaren espedientearen azterketan jartzen du batez ere arreta.

- Epe luzerako zorraren amortizazio-egutegia, 2012ko abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko koadro honetan agertzen dena da:

(Eurotan)

Ekitaldia	Amortizazioa (eurotan)	%	Metatutakoa (%)
2013	282.750	11,72	11,72
2014	282.750	11,72	23,44
2015	282.750	11,72	35,16
2016	282.750	11,72	46,88
2017-2023	1.280.900	53,12	100

- Udalak zenbait prozedura judizialean dago sartuta; horietan, beren zenbateko ekonomikoa dela-eta, hauek dira aipagarrienak:

a) Bi pertsonak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 2010eko urtarrilaren 25eko Ebazpenaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak. Litekeena da, nahiz eta urruneko aukera den, Udalaren aholkularitza juridikoaren kalkuluen arabera, Udalaren aurkako epai batek 180.000 euroko galera ekartzea.

b) Udaleko langile baten kaleratzea baliogabetzeko prozedura, Iruñeko Lan-arloko 1. Epaitegian. Emandako ebazpena irmoa izan ez eta haren aurkako errekurtsoa aurkeztuko bada ere, epaia berresten bada Udalarentzako arriskua 50.000 eurokoa izan daiteke.

*Gure aholkuak:*

- *Aurrekontua legez aurreikusitako epean prestatu eta onestea.*

- *Udal-inbentarioa onartzea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko*

*alten eta baje jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emango du-ena.*

- *Egoeraren balantzeko ibilgetuari dagozkion kontusailletako kontabilitate-saldoak berrikustea eta, hala badagokio, erregularizatzea, entitatearen ondarearen osaera behar bezala erakutsi dezan.*

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok egon behar du barne-kontrol ekonomikoaren eta legezkoaren mende.*

### VI.2. LANGILEAK

Langileen gastu bateratua 6,95 milioi eurokoa da; hau da, 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 50,7 eta gastu arrunten ehuneko 52,9.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu hau ehuneko 6,71 gutxitu da, honako xehetasunen arabera:

(Eurotan)

1. kapitulua	2011	2012	Aldea (%)
Goi-karguak	137.085	135.883	-0,88
Kabineteetako aldi baterako langileak	138.860	133.157	-4,11
Funtzionarioak	1.256.242	1.215.272	-3,26
Lan-kontratudun finkoak	2.409.773	2.162.269	-10,27
Aldi baterako lan-kontratua	1.030.167	838.590	-18,59
Gizarte zamak	2.478.988	2.465.775	-0,53
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>7.451.115</b>	<b>6.950.946</b>	<b>-6,71</b>

Udalaren Osoko Bilkurak 2011ko plantilla organikoa onetsi zuen. 2012an, berriz, ez da plantilla organikorik onetsi, baina hartan ez da al-daketarik izan. 117 lanpostu dauzka. Guztira, 31 lanpostu hutsik daude, hurrengo tauletan ikus daitekeen bezala:

	Lanpostuak	Jardunean	Lanpostu hutsak	Amortizatu beharreko lanpostuak
Izendapen askea	4	4	-	-
Funtzionarioak	36	27	9	-
Lan-kontratudun finkoak	77	55	22	-
<b>Guztira</b>	<b>117</b>	<b>86</b>	<b>31</b>	<b>-</b>

2012ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 163 pertsonak egiten zuten lan, 2011n baino 26 gutxiago. Hona xehetasunak:

Langileak	Udala	S.M. Lagunak	Musika eskola	Guztira
Udalbatzarkideak	1	-	-	1
Aldi baterako langileak - Izendapen askea	4	-	-	4
Funtzionarioak	28	-	-	28
Lan-kontratudun finkoak	53	9	15	77
Aldi baterako lan-kontratudunak	31	4	5	40
Administrazio-kontratudunak	9	-	-	9
Babestutako enplegu soziala	4	-	-	4
<b>Guztira</b>	<b>130</b>	<b>13</b>	<b>20</b>	<b>163</b>

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, 17 pertsonatan egin du behera Udaleko langileen kopuruak, abenduaren 31ko datuak alderatuta (nagusiki, behera egin dute kontratu administratiboek –8 pertsona gutxiago kontratatu dira– eta gizarte enplegu babestuko kontratuak –6 pertsona gutxiago kontratatu dira–.

Udalaren berariazko langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Zerbitzu orokorrak	20
Udaltzaingoa	29
Ekonomia-gaiak	7
Kultura	9
Kirola	1
Gizarte zerbitzuak	13
Hirigintza	22
Hezkuntza	29
Guztira	130

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta lan-harremanaren kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla. 2012ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

Udalak ez zien bere langileei 2012ko abenduko aparteko soldata ordaindu, Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatuta.

Bestalde, egiaztatu dira zinegotziei 2012an sortutako dieten kontzeptuan –osoko bilkuretara, tokiko gobernu batzarrerara, batzordeetara eta abarretara joateagatik– egindako ordainketak, zeinak 2011ko araudi batean araututa baitaude. Izan ere, honakoa xedatzen du arauak:

- 2011ko uztailaren 1eko eraginekin, urteko 42.979 euroko ordainsari bat ezartzea alkate-udal-

buru kargurako –zenbateko hori bat dator A mailako funtzionarioei aplikatzekoa zaien urteko ordainsariarekin, gehi ehuneko 55 bateraezintasun osagarriarengatik eta ehuneko 15 lanpostuko osagarriarengatik.

- Kudeaketa organoen kideak diren zinegotzien ordainsariak ezartzea, honakoaren arabera:

- Osoko bilkurara joatea: 100 euro
- Tokiko gobernu batzarreko kideak: 60 euro
- Informazio batzordeko buruak: 60 euro
- Erakunde autonomoetako buruak: 60 euro
- Eledunen Batzarraren bilkuretara joatea: 50 euro
- Informazio batzordera joatea: 25 euro
- Erakunde autonomoen bilkuretara joatea: 25 euro
- Alkatetzaren eskuordetzea: 25 euro

Araudi horren arabera, zinegotziek 2012an guztira jasotako ordaina 67.180 eurokoa da, eta ez da aurkitu Udalaren barne araudiaren ez-betetzetik.

Gure aholkuak:

- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzea.*

### VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 5,3 milioi euro egin dute 2012an, guztira; kopuru hori ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 38,72 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 40,4 da. 2011. urtearen aldean, egonkor mantendu da, ehuneko 0,26 egin baitu gora.

Kapitulu honetako gastuen betetze-maila, eta 2011n izan zenarekiko alderaketa ondoko koadro honetan adierazten da:

(Eurotan)

2. kapitula	2011	2012	Aldea (%)
Errentamenduak	29.824	25.187	-16
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	1.102.580	1.175.383	7
Inbentariatu ezin den materiala	89.309	68.885	-23
Hornidurak	1.096.879	1.128.084	3
Komunikazioa	54.118	51.488	-5
Garraioak eta pleitak	124.854	122.256	-2
Aseguru-primak	86.471	78.943	-9
Zenbait gastu	529.055	518.158	-2
Beste enpresa batzuek egindako lanak	2.176.821	2.135.138	-2
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordainak	3.603	3.805	6
<b>Guztira</b>	<b>5.293.514</b>	<b>5.307.327</b>	<b>0</b>

Horrez gainera, kapitulu honi atxiki zaizkion kontratazio-espeditente hauek aztertu ditugu (zenbatekoak eurotan, BEZa barne):

Deskribapena	Mota kontratua	Eseleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa	2012an betetakoa
Haur eskoletako menuak eta jantokiko laguntzaileak 2012/2013 ikasturtean	Laguntza	Irekita eskaintza onenarentzat	73.177	7	64.403	18.485
Kiroldegiko garbiketa eta atezaina	Laguntza	Irekita eskaintza onenarentzat	179.080	6	174.821	173.377
Etxeko laguntza zerbitzua	Laguntza	Irekita eskaintza onenarentzat	78.400	2	78.400	73.938
2012ko jaietako su artifizialak	Hornidura	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	4.500	7	4.275	4.275

Azterketa horren eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren ondorioz, gastuak justifikatuta daudela, behar bezala kontabilizatu direla eta egokiro izapidetu direla egiaztatu da, eta ez dela aplikatzekoa den araudiaren urratze larririk ikusi.

#### VI.4. INBERTSIOAK

2012. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (0,3 milioi euro) ehuneko 86 bete da, eta 0,29 milioira iritsi da; hau da, ekitaldiko aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 2.

Honakoa izan da azken hiru ekitaldietan VI. kapituluan aitortutako betebeharrak garbien bilakera:

2010:	2,9 milioi euro.
2011:	0,23 milioi euro.
2012:	0,29 milioi euro.

Horrez gainera, kapitulu honi atxiki zaizkion kontratazio-espeditente hauek aztertu ditugu (zenbatekoak eurotan, BEZa barne):



Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa	2012an betetakoa
Iruñeko etorbidea eta Eultzako etorbidea zolaberritzea	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	149.992	4	138.744	138.744
Arga ibaian egokitze-lanak egitea	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	85.231	3	59.661	54.678

Aurreko berrikuspena eginda eta gastuen lagin bat aztertu ondoren, espedienteak izapidetzean dagokien kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela ikusi da.

#### VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012an, aitortutako eskubide bateratuak 14,7 milioikoak izan dira; ia guztiak eragiketa arruntengatiko diru-sarrerak izan dira.

Betetze maila ehuneko 93koa izan da; nabarmentzekoa da zeharkako zergen betetze

maila txikia, EIOZa, ehuneko 75 bete baita, eta inbertsio errealeen besterentzeari dagokiona, ehuneko 18an bete dena.

Diru-sarrera arrunten artean tributu bidezko diru-sarrerak (7,2 milioi euro) eta transferentzia arruntak (7,3 milioi euro) nabarmentzen dira. Kapital-eragiketen ondoriozko diru-sarrerak 0,2 milioi eurokoak izan dira.

2011. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ia ehuneko 3 egin dute gora. Hona xehakapena:

(Eurotan)

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubide garbiak, 2011	Aitortutako eskubide garbiak, 2012	2012/2011 aldea (%)
1. Zuzeneko zergak	3.492.873	3.577.126	2,41
2. Zeharkako zergak	130.577	141.971	8,73
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3.481.444	3.513.450	0,92
4 Transferentzia arruntak	7.216.466	7.267.687	0,71
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	33.032	56.450	70,89
<b>Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)</b>	<b>14.354.392</b>	<b>14.556.684</b>	<b>1,41</b>
6. Inbertsio errealeen besterentzea	-	62.900	100,00
7 Kapital-transferentziak	8.115	155.342	1814,26
8. Finantza-aktiboak	-	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	-	-
<b>Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)</b>	<b>8.115</b>	<b>218.242</b>	<b>2589,37</b>
<b>Guztira</b>	<b>14.362.507</b>	<b>14.774.926</b>	<b>2,87</b>

Diru-sarrerak handitu izatearen arrazoia da, funtsean, zuzeneko zergek (batez ere, aplikatzekoa zaien tasa handitzearen ondorioz), inbertsio errealeen besterentzeek eta kapital-transferentziek gora egin dutela.

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubideak (2011)	Aitortutako eskubideak (2012)	2012/2011 aldea (%)
Lurraldeko kontribuzioa	2.085.447	2.148.667	3,03
Ibilgailuak	973.565	1.000.392	2,76
Lursailen balioa handitzea	213.117	204.619	-3,99
JEZa	220.744	223.448	1,22
EIOZa	130.577	141.971	8,73
<b>Guztira</b>	<b>3.623.450</b>	<b>3.719.097</b>	<b>2,64</b>

Kontribuzioak jokaera egokia izan duela ikusi dugu (funtsean, aplikatzekoa den tasak gora egitearen ondorioz), bai eta jarduera ekono-mikoarekin lotutako gainerako zergek ere, lursailen balio-gehikuntzaren gaineko zergaren kasuan izan ezik.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain/altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Kontzeptua	Ehunekoa 2/1995 Foru Legea	Udalak aplikatuak (%)
Lurraren kontribuzioa	0,10 eta 0,50 bitarte	0,264
JEZa	1 eta 1,4 bitarte	1,40
<b>Lurren balioaren gaineko zerga</b>		
Gaurkotze-koefizientea	2 eta 3,8 bitarte	3
Zerga-tasa	8 eta 20 bitarte	11,55
<b>Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)</b>	2 eta 5 bitarte	5

Tasa hauek aurreko urtean aplikatutakoen berdinak dira, salbu eta lurraren balioaren gaineko zergaren kasuan aplikatutakoa; azken hori, izan ere, aurreko ekitaldian 0,255ekoa zen eta 2012an 0,264ra igo da.

Balorazio-ponentzia azkeneko eguneratzea 2000. urtean onartu zen, 2001etik aurrera indarrean sartzeko; beraz, askoagatik gainditu da azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzkoak balorazio-ponentzia derrigor eguneratzeko jartzen duen bost urteko epea.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, aplikatutako tasak oro har zuzen aplikatu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

*Gure gomendioak:*

- *Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 1eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea.*

## VI.6. HIRIGINTZA

Barañaingo Udalak bere baliabideen eta besteren bitartez egiten ditu hirigintzako lanak. Honako pertsona hauek daude atxikita Hirigintza Alorrari:

- Bi administrari.
- Udaleko obra-lantaldearen arduradun bat.

Horrez gainera, 2012an Udalak hirigintza-gaietarako kanpoko aholkularitza bat izan du, era honetan osatua:

- Arkitektura enpresa bat; haren zerbitzuetarako 2012ko ekitaldian 26.688,27 euroko betebeharrak aitortu ziren.
- Ingeniaritza enpresa bat; haren zerbitzuetarako 2012ko ekitaldian 17.781,28 euroko betebeharrak aitortu ziren.

Barañaingo Udaleko hirigintza-antolamenduko plan orokorra Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren martxoaren 7ko 137/1991 Foru Aginduz onartu zen. Planeamendu hori ia-ia osorik beteta dago.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko. Gaur egun arte, Udalak ez du abiatu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko tramiterik.

2010eko otsailean, Osoko Bilkurak Udalaren lurzoru-ondarea eta haren erregistroa eratzea onartu bazuen ere, harrez gero ez da ezer egin horri dagokionez. 2012an ez da Udalaren lurzoru-ondareko ondasunen besterentzerik izan.

Hirigintza-hitzarmenen erregistroan hiru hitzarmen daude jasota: bat 2006koa, beste bat 2008koa eta hirugarrena 2012koa.

2012an ez da hirigintza jarduketarik izan, HAPOaren UC-21 Unitateko egiturazko aldaketa puntual bat izan ezik, zeina 2012ko azaroaren 30ean onetsi baitzuen hasiera batez Udalaren Osoko Bilkurak.

*Gure aholkuak:*

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen espezifikazioetara egokitzea.*

- *Lurzoruaren udal ondarea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik eratzea eta kudeatzea, lursaileri eta eskudiruari dagozkien sarrerak eta irteerak bereizita erregistratuz, eta hura indarrean den araudian ezarritako xedeetarako erabiltzea.*

## VI.7. SOZIESTATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK

### VI.7.1. "Baraberri S.L." merkataritza-sozietatea

2004ko azaroan, Udalak "Baraberri S.L." sozietate mugatua eratzea onartu zuen; sozietate horren kapital osoa udalarena da. Enpresa honen xedea hirigintza-garapeneko zerbitzuen eta Barañainen Garapen Integralerako Zerbitzuan sarturik dauden zerbitzu ekonomikoen kudeaketa da.

Sozietatearen kapitala 9.000 eurokoa da. 2006ko irailaren 13an, Udalak zenbateko hori gordailatu zuen, hark sozietate-kapitalari eginiko ekarpenaren ordainketa gisa, "Baraberri S.L. en constitución" izenean dagoen banku bateko kontu batean, nahiz eta sozietate horren eratzea gerazita zegoen.

2012an erabaki da ez jarraitzea sozietate hori eratzeke prozesuarekin. Kapital sozialari zegozkion 9.000 euroak berreskuratu dira.

### VI.7.2. Barañain Auditorioa Fundazioa

2003ko urtarrilaren 17an, Barañaingo Udalak "Fundación Auditorio Barañain / Barañain Auditorio Fundazioa" delakoa eratu eta bere babes-pean hartu zuen. Fundazio honen xedea Barañaingo arte eszenikoen zentroa, Udalarena, kudeatu eta administratzea da.

2012ko ekitaldiko urteko kontu laburtuak, txosten honetako II. eranskinean ageri direnak, ikuskatu gabe daude.

2012ko abenduaren 31n, Fundazioaren langileak 6 ziren guztira. Beraz, 2 langile gutxiago daude aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Fundazioak, 2011ko ekitaldian, 684.447 euroko diru-sarrerak izan zituen, eta 683.642 euroko gastuak egin zituen; beraz, 805 euroko superabita

izan zuen. 2012an, diru-sarrerak 527.820 eurokoak izan dira eta gastuak 591.743 eurokoak; 63.923 euroko defizita izan da, beraz.

Udalak Barañain Auditorioa Fundazioari 2011rako eginiko ekarpena, aurrekontuko kontusail izendun batean aurreikusia, 2011ko martxoaren 31n formalizatu zen, hitzarmen-programa baten bidez, eta 20.000 eurokoa izan zen. 2011ko martxoaren 23an, Udalak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuten, Gobernuak 2011n gutzira 450.000 euroko ekarpena egiteko konpromisoa hartuz, auditorioaren jarduerak –besteren artean Nafarroako Orkestra Sinfonikoa– finantzatzeko.

Udalaren 2012ko diru-laguntza 65.000 eurokoa izan da; Nafarroako Gobernuarena, berriz, 36.543 eurokoa.

2012ko abenduaren 31n, Fundazioaren kontabilitate-ondare garbia positiboa zen, 37.457 euroko zenbatekoarekin (2011ko abenduaren 31n, 101.380 euro positibokoa zen).

#### *Gure aholkuak:*

- *Fundazioaren urteko kontuak Udalaren kontu orokorrari eranstea, eranskin gisa gutxienez.*

- *Kontabilitate-sistema bat ezartzea, Fundazioaren jarduerak daukaten kostua ezagutu ahal izateko.*

- *Fundazioaren kontuak ikuskatzea.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**I. ERANSKINA. FUNDACIÓN AUDITORIO BARAÑÁIN/BARAÑAIN AUDITORIOA FUNDAZIOA**

2012ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtua

(Eurotan)

Jardunean		
	31-12-2012	31-12-2011
<b>Aktibo ez korrontea</b>		
Ibilgetu materiala	45.035	78.726
<b>Aktibo arrunta</b>		
Erabiltzaileak eta berezko jardueraren beste zordun	36.543	72.000
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu	66.309	23.413
Epe laburreko ekintzak	0	0
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	14.446	60.316
	117.298	155.729
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>162.333</b>	<b>234.455</b>

(Eurotan)

Ondare garbia eta pasiboa		
	31-12-2012	31-12-2011
<b>Ondare garbia</b>		
Funts berekiak	37.457	101.380
Fundazioaren zuzkidura	736.250	736.250
Aurreko ekitaldietako soberakinak	-634.870	-635.675
Ekitaldiko soberakina	-63.923	805
	37.457	101.380
<b>Pasibo ez arrunta</b>		
Epe luzeko zorrak	0	12.240
<b>Pasibo korrontea</b>		
Epe laburreko zorrak	149	149
Epe laburreko zorrak	149	149
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzekoak diren	124.727	120.686
Beste hartzekodun batzuk	124.727	120.686
	124.876	220.074
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b>162.333</b>	<b>234.455</b>

2012ko abenduaren 31ko emaitzen kontu laburtua

(Eurotan)

Deskribapena	2012	2011
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	115.830	481.694
Sustapen, babesle eta laguntzaileak direla eta izaniko diru-sarrerak	79.287	31.694
Ekitaldiaren soberakinari egotzitako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	36.543	450.000
Salmentak eta merkataritza-jardueraren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk	410.369	200.981
Jardueraren bestelako diru-sarrerak	1.530	1.449
Langile-gastuak	-243.279	-307.994
Jardueraren bestelako gastuak	-314.089	-325.727
Ibilgetuaren amortizazioa	-33.690	-39.217
Beste emaitza batzuk	0	-9.015
Jardueraren soberakina	-63.329	2.171
Diru-sarrera finantzarioak	91	323
Finantza-gastuak	-685	-1.689
Finantza-eragiketen soberakina	-594	-1.366
Zergak ordaindu aurreko soberakina	-63.923	805
Mozkinen gaineko zergak	0	0
Ekitaldiko soberakinean aitortutako ondare garbi aitortuaren aldaketa	-63.923	805
Ondarean zuzenean egotzitako diru-sarrerak eta gastuak	0	0
Ekitaldiko soberakinaren birsailkapenak	0	0
Irizpide-aldaketan ondoriozko doikuntzak	0	0
Fundazioaren zuzkiduran izandako aldaketak	0	0
Beste aldaketa batzuk	0	0
<b>Gututzko emaitza; ekitaldiko ondare garbiaren aldaketa</b>	<b>-63.923</b>	<b>-34.682</b>